

**AHALDUNTZE BERTSO-ESKOLA**  
**2017-2018 ikasturtea**

**Izena emateko epea 2017ko irailaren 6tik 22ra**

Bertsolaritzarentzat emakumeak plazan izateak duen garrantziaz jabeturik, eta emakumeen jendaurreratzean ematen diren ezaugarri orokorrak kontutan hartuta, bertsolari bezala aurrera egin nahi duten emakumeentzat lagungarri izateko sortu da Ahalduntze Bertso-Eskola.

Ahalduntze Bertso-eskola bat-bateko maila ezberdinak dituzten emakumeentzat dago zabalik, eta ikasturte osorako konpromisoa eskatuko du, bai asistentzian eta baita parte hartzean ere.

**Ezaugarriak**

- ☉ Maiztasuna: hilean behin, larunbata goizez (10:00etatik 14:00etara).  
Ikasturtea 2017eko urrian hasi eta 2018ko ekainean bukatuko da.
- ☉ Lekua: Villabona, Bertsozale Elkartearen egoitza.
- ☉ Partaide kopurua: gutxienez 8, gehienez 16.

**Oinarriak**

1. **Konpromisoa:** Ikasturte osoan zehar klaseetara etortzea eta dinamikan parte hartzea eskatuko zaie bertso-eskolan izena eman dutenei.
2. **Esperimentazioa** denez bertso-eskola honen oinarria, hori zaintzeko, egitasmoaren kanpo komunikaziorik ez da egingo (hedabideak, blog pertsonalak, facebook, twitter, eta abar). Bertan ikasitakoa ohiko bertso-eskolatara zabaltzeko bideak aztertuko dira gerora.
3. **Aniztasuna:** Emakumeen arteko eta ikuspegien arteko aniztasuna eta errespetua oinarri izango da.

**Egitaraua**

<b>AHALDUNTZE BERTSO-ESKOLA 2017-2018</b>	
2017	<p><b>Oholtzan landuko diren gaiak, jarrerak:</b> Klixekak. Inertziatetik eta diskurtso eginetatik irtetea. Ingenioa. Munduari begirada.</p> <p><b>Gai-jartzaile lanetan:</b> Ainhoa Aranburu, Arkaitz Goikoetxea</p> <p><b>Bideratzaile lanetan:</b> Ixiar Eizagirre, Nere Erkiaga</p>
<p>Urriak 21 Azaroak 18 Abenduak 23</p> <p>2018</p> <p>Urtarrila 27 Otsaila 17 Martxoak 17 Apirila 21 Maiatza 19 Ekaina 16</p>	



**AHALDUNTZE BERTSO-ESKOLA  
2017-2018 ikasturtea**

**Izen ematea:**

- Mezu bat bidaliz: [umorez@bertsozale.eus](mailto:umorez@bertsozale.eus)
- Zure izen-abizenak, telefonoa eta emaila utzi.
- Epea: 2017ko irailaren 6tik 22ra, biak barne.
- Taldea osatzeko izen emate ordena hartuko da kontutan.
- Taldearen osaketaren berri irailaren 29an emango da eta matrikula ordainduko da.
- Izena emateak bertso-eskolaren oinarriak onartzen direla adierazten du.

**Matrikula:**

- Zenbatekoa: 150 €
- Matrikula ordaintzeko epea: urriaren 6a.
- Ordainketarako banku zenbakiak:
  - o Euskadiko Kutxa: 3035 0060 43 0600042844
  - o Kutxabank: 2095 5005 99 1061466982
- Matrikula ordaindutakoan ez da dirurik itzuliko.
- Matrikulatik kanpo gelditzen dira ikasturtean zehar sortu daitezkeen bestelako ekintza gehigarriak.

*\*Ahalduntze Bertso-eskolaren kostu nagusia Emakunderen diru-laguntzaren bidez osatu da.*